

## Garajeak alokatuko ditu Udalak

148 garaje-plazarentzako izena emateko epea ireki du



### Jaialdi berezia Jalguneren 20. urteurrenean

Jalgune elkarteak "20 urte 11 bertute" ekimenaren baruan kokatzen den ekintza alai eta koloretsua burutu zuen larunbatean Manuel Lekuona kultur-etxean: dantza, magia eta antzerkia ikusi ahal izan ziren ordu eta erdi iraun zuen ikuskizunean. Larunbateko ekintzekin, 20 urte pasatuta ametsak zutik dirautela frogatu zuten Jalgune kideek. **5. orrialdea**

Lasarte-Oriako Udalak Okendo Plazan, Donostia Etorbidean, eta Bekokale Bideko 12.ean dituen 148 garaje alokairuan jarriko ditu eta momentuz interesatuek izena emateko epea ireki du.

Udalarenak diren plaza horiek herritarrei edo herrian lan egiten dutenei uzteko egitasmoa abian jarri aurretik, behin-behinean izena emateko epea ireki du Udalak, plaza horiek betetzeko zenbateko eskaera dagoen jakin eta zein sistemarekin kudeatuko diren erabaki ahal izateko.

### Baldintzak

Udalak jakitera eman duenez, plaza horiek gehienez hileko 60 eurotan alokatuko dira. Epeari dagokionez, 5 urteko alokairua izango litzateke eta luzatzeko aukerarekin.

Alokairuko garaje plaza bat eskatu dezakete herriko



bizilagun guztiek eta haien jarduera ekonomikoa edo langintza Lasarte-orrian gauzatu dutenek.

Momentuz, interesatuek izena emateko epea ireki du

beraz Udalak, baina garajeak alokatzeko behin betiko baldintzak hurrengo deialdi publiko batean finkatuko direla azpimarratu du Udalak.

Eta argi utzi nahi du Uda-

lak, behin-behineko izen-emateak ez duela konpromisorik, betebeharririk, eskubiderik eta eskubide-itxaropenik sortuko, ez eskatzailearen aldetik, ez Udalaren aldetik.

### Izena ematea

Interesatuak daudenean eskaera-orria bete beharko dute eta Udalarekin Etxebizitzaren Departamentura bidali edo eraman, 2011ko abenduaren 31 baino lehen.

Orri hori "pdf" formatuan deskarga daiteke, eskuz edo idazmakinez betetzeko. Udalaren [www.lasarte-oria.org](http://www.lasarte-oria.org) webguneko "berriak eta oharrak" atalean dagoen "alokairuan eskuratzeko behin-behineko izen-ematea" loturan.

Informazio gehiagorako, Etxebizitza departamentura hurbildu edo 943 370 105 telefono zenbakira deitu behar da. •

## Babarrunaren kofradeak Semblanten

Semblante Andaluz-eko kideek babarrun jana antolatu zuten igande eguerdian. 120 lagun bildu ziren Jose Ignacio Telleria eta Fernando Antón sukaldariak prestatutako babarrunak jateko. Lehena, Tolosako Babarrun Kofrade Nagusia da eta bigarrena berriz, Gaztelubide elkartearen sukaldaria. Behin bazkaldu ostean, Semblanteko lau kideri omenaldia egin zitzaizkien, Manuel Núñez, Ramón Moreno, Antonio Beltrán eta Antonio Almenarari hain zuzen ere.



Omenduek amantal pertsonalizatua jaso zuten opari, Abdón Fernández elkartearen presidentea erdian dute.

### KULTURA /2

Bertsolari filmaren zuzendariarekin solasean

### ALBISTEA /3

Larunbatean banatu ziren herriko literatur lehiaketako sariak

### ALBISTEA /4

Okendon egingo da Multimuskala jaialdia abenduak 16, 17 eta 18an



MAITE  
ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Asier Altuna Zinemagilea

# “Bertsoa eta zinema komunikatzeko eta sentimenduak adierazteko tresnak dira”

■ Bertsolari filma kultur etxean ikusi ahal izango da, ostegunean 21:30ean ■ Okendo zine taldeak antolatutako zine forumean emango da bertsolaritzaren inguruko pelikula luzea

Ostegunean, abenduaren 1ean, 21:30ean eskainiko da Asier Altunaren Bertsolari filma Manuel Lekuona Kultur etxean. 2005ean Aupa Etxebeste! filma egin zuen Altunak Telmo Esnalekin batera eta orduan jasotako arrakastaren ondoren, bertsolaritzaren inguruko dokumentalarekin saiatu da bakarka. Bertsolari luzemetraiaz eta herriko Landaberri BHI-ra egindako bisitaz jardun gara Bergarako zinemagilearekin.

MAIDER AZURMENDI

Landaberri BHI-n izan zen Asier Altuna bertako ikasleekin solasean. Komunikazioaz ari dira hausnartzen gazteak eta gaiarekin bat eginez, komunikaziotik abiatu eta sorkuntzarako mundua hurbildu nahi izan zien zinemagileak.

## Zer iruditzen zaizu gazteekin egindako ekintza hau?

Komunikazioaren gaia gazteekin lantzea garrantzitsua iruditzen zait eta oso gustura parte hartzen dut horrelako ekintzetan.

Kontutan izan behar da gazte hauek etorkizuneko sortzaileak izan daitezkeela eta kultura kontsumitzaile potentzialak direla. Euskaraz egiten diren filmak daudela jakin behar dute, horretan lan egiten duten sortzaileak gaudela eta hortik ere bizi daitezkeela.

Zinema zirkuitu independente hori badagoela ezagutu behar dute gazteek, gure filmak ikus ditzaten baita etorkizunean euskaraz sortzeko beharrik izan ez dezaten.

## Nolakoa izan da egindako harrera?

Harrera oso ona izan da. Mundu berezi bat da gazteena eta beti izaten dute gehiago jakiteko grina. Labur pila ditut eginda eta horietako batzuk erakutsi dizkiet. Horiekin euren arreta edukitzea errazagoa izan da. Orokorrean iruditzen zait zinea erakargarria gertatzen zaiela egungo gazteei.

## Bertsolari, filmari dagokionez bakarrik egiten duzun lehen luzemetraia da. Zergatik bertsolari zine?

Sei urtean ez gara Telmo Esnal eta biok horrelako proiektuetan sartu. Denbora horretan beste gauza asko

egin ditugu, Brinkola telesaila, labor batzuk. Elkarrekin proiektu batzuk izan ditugu baina ez dira aurrera ateratu.

Dokumentala egiteko gogoia 2005eko bertso txapelketan hasi zen. Bertan sortu zen giroa eta ikusmina ikusita, guzti hori erakusteko modukoa zela iruditu zitzaidan.

Bertsoa eta zineak badiutuzte zenbait ezaugarri amankomunean, komunikatzeko tresnak dira biak eta sentimenduak adierazteko eta jendearengana iristeko baliabide oso indartsuak. Horregatik hasi nintzen bertsolari zinearekin. Azkenean 2009ko Bertsolari Txapelketako finala grabatzea erabaki nuen.

Momentu horretan oraindik ez nuen guztiz argi ikusten hortik filma atera zitekeenik baina grabaketaren ondoren bai, kristoren gaia neukan, pelikula bat edo hamaika egiteko. Gerora prozesua oso azkar joan da.

## Gaiki esan bezala, askorako ematen du. Ildo bat aukeratzeari ez zen erraza izango.

Ba ez. Esan bezala ikuspuntu asko daude eta jorratu ahal diren bide ezberdinak baina behin hautatuta bide hori egitea erraza izan da. Nahiz eta bi urte pasa diren grabatzen hasi nintzenetik, oso bidaia azkarra izan da. Ez dut denbora gehiegirik izan balorazioak egiteko, hartutako bidea zuzena zen edo ez pentsatzeko.

Bertsolari zinearekin fidela izaten saiatu naiz, bertsoaren bat-batekotasunarekin bat egin du dokumentalarekin. Martxoan grabatzen ari nintzen, maiatzean muntatzen eta azaroan dagoeneko zine komertzialean estreinatuta ondoren festibalean erakusteko prest. Bertsoa bezalakoa izan da filma niretzat, bota eta listo!



## Donostiako Zinemaldian estreinatu zenuen filma. Zer suposatu du han egoteak?

Hasteko oso polita izan da bertan estreinatu ahal izatea. Zinemaldian atzerriko adituak egoten dira eta nolabait erakuslehoi bat da. Sail Ofizialean aurkeztea esperientzia polita izan da eta filmari nolabaiteko estatusa eman dio.

Zinemaldian egoteak banaketa-enpresa indartsu batekin lan egitea ahalbidetu du eta hori oso ona izan da filmarentzat. Proiektzio zabalagoa eman dio. Golem gurekin harremanetan jarri zen Zinemaldiaren harira eta horrek banaketa txukuna egitea ahalbidetu du.

## Eta orain zer?

Hiriburutan dagoeneko filma karteleratik erortzen ari da. Hilabete honetan baita hurrengoan, herriz-herriz ibiliko da, filma ez da hilko. Lankurarekin hitzarmena dugu gerora emandakia antolatu eta hitzaldi zein solasaldiak egiteko ikastetxe, euskaltegi eta kultur aretoetan. Beste zirkuitu bat izango da. Hauetan jendearekin harremanetan egoteko aukera izango dut eta oso esperientzia aberasgarria izango dela iruditzen zait.

Bestetik, Kubara goaz Andoni Egaña eta ni bertako zinemaldian Bertsolari aurkeztea. Oso esperientzia berezia izango dela uste dut izan ere, pelikulan Alexis Diaz Pimienta kubatar repentista azaltzen da, nolabaiteko harremana badu Bertsolari-k Kubarekin. Habanaren repentistekin bilduko gara, hitzaldi bat emango dugu. Festibalen zirkuituan hasteko leku ezin hobea iruditzen zait Kuban.

## Zinetan denbora nahikoa izan dela iruditzen al zaizu?

Lau aste eman ditu zinema aretoetan eta 15.000 ikusle inguru izan ditu. Pozik nago emaitzarekin. Kalean jendeak eskerrak eman dizkit film hau egiteagatik baita zoriondu ere eta hori oso polita da. Erraz ikusteko pelikula da eta jendea hunkitu egiten da zenbaitetan beraz oso balantze positiboa egiten dut.

## Kuba ondoren hurrengo festibala zein izango da?

Beno, askotatik jaso dugu dagoeneko gonbitea baina oraindik poliki-poliki goaz. Askotara aurkeztu dugu filma eta ikusi behar erantzuna.

Jakin badakigu pelikula festibalean funtzionatzeko

ezaugarriak badituela baina ikusiko da zer gertatzen den. Goya sarietan ere egon nahi dugu.

## Sariak jasotzea espero al duzu?

Aspaldian jaso nuen nik saria. Niretzako Bertsolari egitea pauso handi bat izan da zinegile bezala. Telmoren lankidetasun horretatik aparte pelikula honekin aurrera egiteak nahikoa "bertigo" ematen zidan hasieran baina aurre egin diot eta oso ondo sentitu naiz lan hau egiten; gozatu egin dut. Gainera fikzioz kanpo dagoen dokumentalarekin saiatu naiz eta azken arte disfrutatu dut. Niretzako plazerra izan da lan hau egitea, bere tentsio momentuak egon dira noski baina oso gustura sentitu naiz orokorrean. Sariak erortzen badira, ongi etorriak izango dira, baina nire oparia dagoeneko jasotako.

## Kanpotarrek nola ikusten dute bertsolari zine?

Oro har harrituta geratzen dira bertsolari zinearen jardun bereziarekin. Pelikularen ildo bisual eta poetikoarekin ere gustura geratzen da jendea.

## Eta hurrengo proiektua?

Gogoia daukat beste pelikula bat egiteko. Ahal banu hurrengoarekin hasiko nintzateke, pelikula honek gehiago egiteko gogoia eman dit eta. Esperientzarako, egiteko moduekin jolasatzea gogoia daukat. Dokumental hau egiteak, kreatiboki oso bizi egotea eskatu dit baina aldi berean ez dit nekerik sortu. Hurrengo lana agian fikzio bat izango da.

## Lasarteoriarrei zer esango zenieke Bertsolari ikustera joan daitezke?

Lasarte-Orian ikusle potentzial asko dago. Nik uste dut pelikula hau bertsolari zine oso urrutitik bizi duten pertsonentzat badela. Benetan jendea animatzen dut bertsozalea ez izan eta euskaraz ez jakin arren, Bertsolari ikustera joateko. Dokumentalaren ostean, beste modu batera ikusiko dute bertsolari zine eta baita euskaraz ere. Bertsolari zine mundura hurbiltzeko aukera polita eskaintzen du filmek. •



Saridun guztiek talde argazkia atera zuten sari banaketa ekitaldia amaitu ostean.

## Literatur lehiaketaren sari banaketa larunbatean

Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales Kultur zinegotzia eta Xabier Goitia kultur-etxeko gerenteak banatu dituzte sariak

Lasarte-Oriako Udalak urtero antolatzen duen literatura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia egin zen larunbat eguerdian Manuel Lekuona kultur-etxean. Haur eta gazteen XXIV. lehiaketa izan da aurtengoa eta heldue- na XXV. ediziora iritsi da. Jende ugari bertaratu zen sari banaketa ikustera eta musikaz lagundutako poema errezitaldiaz ere gozatu ahal izan zuten denek.

**G**iro goxoan burutu zen literatura lehiaketaren sari banaketa jendez lepo zegoen kultur-etxeko hitzaldi aretoan. Sariak eta diplomak banatzeari ekin aurretik ordea,

hitzaldi labur bat eskaini zuen Pablo Barrio alkatea. "Mahaiaren beste aldean" lehen aldía zuela aitortu zuen, idazlea ere bai baita gure herriko alkatea. Horregatik, hainbat aholku eman ziz-

kien herriko zein kanpoko etorkizuneko idazle guztiei.

"Saria jasotzea polita da, denoi gustatzen zaigu, baina idazketa prozesuan garrantzitsuena, sortzea da, idaztea bera", esan zuen Barriok.

Bestalde, literaturaren helburua eta bene benetako saria, idazleak sortutako obra hori "besteekin konpartitzea" dela iritzi zion.

Amaitzeko, idazle gazteek sekulako "inbidia" ematen diotela aitortu eta idazten jarraitzeko gomendioa luzatu zien guztiei. •

### DESKONTUAK

## Gasolina merkeagoa Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeako txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordaintzea egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du merkatarien elkarteak.

Lasarte-Oriako Aterpea Merkataritza elkarteak martxan jarritako kanpaina da eta txartelaren erabilera sustatzea du helburua nagusi. •

### EUSKARA

## "Gipuzkoa Berriketan" ekimena aurkeztu du Foru Aldundiak

Abenduaren 3an, larunbata, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu da. Hari horretatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta herrialdeko zazpi udalek "Gipuzkoa Berriketan. Guk ere euskaraz" ekimena aurkeztu zuten ostiral eguerdian, Foru Aldundiaren egoitzan.

"Gipuzkoa Berriketan. Guk ere euskaraz" ekimenean, Aldundiak eta zazpi udalek mintzodromoak egingo dituzte datorren astean eta horien artean, Lasarte-Oria dago.

Gure herrian abenduaren 2an, ostiralean izango da. Arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara bitartean Okendo plazan herriko hainbat eragile eta herritar bilduko dira, euskaraz hainbat gai buruz mintzatzeko.

Helburua, beraz, garbia da: euskararen erabilera sustatzea, euskara plazara eramatea. •



Aldundiko eta Mintzodromo egingo duten herrietako ordezkariak. FORU ALDUNDIA

## Kultur Kale zikloa sortzeko deialdia denda eta tabernei

**L**asarte-Oriako Udalak eta Xpression Kultur Elkarteak elkarlanean, herriko kulturako ekintza alternatiboei bideak zabaldu eta artistei haien sorkuntza hedatzeko eta promozionatzeko lekuak eskaintzen, bi urte daramatzate.

Orain artean, ekintza oro Manuel Lekuona Kultur-etxeko kafetegian gauzatzen bazen ere, orain planteamendu berri bat egin nahi dute, horiek guztiak espazio irekietara edota herriko taberna eta dendetara eramateko.

Era honetara, jendearekin harreman estuago lortu, eta kontzertuak, antzerkiak, etab., toki naturalago eta hurbilagoetara burutuko dira. Zirkuitu berri horrek Kultur Kale Zikloa izena hartuko du.

### Deialdia

Hori dela eta, Lasarte-Oriako Udalak eta Xpression-ek taberna eta dendei dei egiten diete ekintza kultural ezberdinak uztartuko dituen zirkuitu

honetan parte har dezaten. Ekimena 2011. urtearen bukaeratik hasi eta 2012. urte osora luzatuko da. Eta eskakizun bakarria espazio egoki bat edukitzea izango da, edo ekintza horiek kalean, hiri-espazioan burutzeko asmoa agertzea.

Gainera, artelanak beren espazioetan ikusgai jarri nahiko lituzketen taberna edo dendek antolakuntzaren babesa izango lukete, zeren, funtsean, proiektu honen helburua herriko mota orotako artelanen normalizazioa baita.

Era honetara, antolatzaileek artista orori proiektuan parte hartzeko deialdia ere luzatzen diete.

Proiektu honetan parte hartu nahi duenak Manuel Lekuona-ko 943 376 181 edo Xpression-eko 943 368 137 telefono zenbakietara deitu behar du. Bestela, haremanetan jarri daiteke ere [kultura@lasarte-oria.org](mailto:kultura@lasarte-oria.org) edo [jokin@xpression.net](mailto:jokin@xpression.net) helbide elektronikoetara mezua bidaliz. •

### Lasarte-Oriako XXV. Literatura Lehiaketa

Euskarazko ipuina: Alaine Agirre Garmendia, "Urdin Ilun"

Euskarazko poesia: Aitor Albistur Pulido, "Bizipen galduen izkribua"

Gaztelaniazko Ipuina: Juan Carlos Muñoz Garcia, "La Memoria, el olvido y todo lo demás"

Gaztelaniazko Poesia: Santiago Redondo Vega, "La voz a Sotavento"

### Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXIV. Literatura Lehiaketa

#### A kategoria (2002 urtean edo ondoren jaiotakoak)

Euskarazko ipuina:

- 1.- Maren Urkizu Urruzola, "Kolore-Lapurra"
- 2.- Unax Otaegi Garcia, "Alaitasunaren zubia"
- 3.- Beñat Mazkiarazan Gaztelumendi, "Armiarma eta eulia"

Gaztelaniazko ipuina:

- 1.- Nerea Serrano Calvo, "La tortuga voladora"
- 2.- Ainhoa Heredero, "La rana y el caballo en el mundo al revés."
- 3.- Eneko Otero Sotomayor, "Las bicicletas y el burrito"

#### B kategoria (1999, 2000 edo 2001 urteetan jaiotakoak)

Euskarazko ipuina:

- 1.- Jone Arroyo Egizabal, "Olium Botellumen abenturak"
- 2.- Julen Urruzola Oianguren, "Alain super-heroien munduan"
- 3.- Haizea Furundarena Basarte, "Izar distiratsuak"

Gaztelaniazko ipuina:

- 1.- Unai Anguiano Guijarro, "Un nuevo amigo en la granja"
- 2.- Mirari Etxebeste Garcia, "La aventura de Gotin y Gotán."
- 3.- Nerea Guinaldo Pozo, "La playa que nunca se acababa"

Gaztelaniazko Poesia:

Noa Carretero Uresberueta, "Una mentira"

#### C kategoria (1996, 1997 edo 1998 urteetan jaiotakoak)

Euskarazko ipuina:

- 1.- Beñat Urruzola Oianguren, "Bi egun, 7 kilometroan"
- 2.- Leire Chorro Holgado, "Hautsontzi baten istorioa"
- 3.- Maialen Aizpurua Artola, "Anneren gorabehera"

Gaztelaniazko ipuina:

- 1.- Leire Chorro Holgado, "Gamacha visita el palacio"
- 2.- Irune Casado Bazaco, "Un avión diario"
- 3.- Saram Loizaz Marjani, "Quintanaloranco"

Gaztelaniazko poesia:

Cristina Garcia Arizmendi, "Detrás de tantas promesas, se esconden muchas mentiras"



# Okendora itzuliko da multimusikala

■ Hamargarren aldiz antolatuko dute gazteek abenduaren 16-17-18an ■ Kontzertuak izango dira ostiral eta larunbatean eta neguko euskal jaia igandean ■ Abenduaren 2an aurkeztuko dute

Multimusikala 0 deitu diote aurtengo kontzertu sortari, 10. multimusikala maiatzean egin nahi baitute punta puntako taldeekin. Baina ez da hutsala izango: Okendon 300 metro karratuko karpa jarriko da, bertan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera izango da, ostiral eta larunbatean kontzertuak ikusteko, larunbatean hainbat tabernetan kontzertu egingo dira eta igandean neguko euskal jaia. Besteak beste, Bartzelona eta Italiatik datoz musika taldeak, eta herrikoek ere jotzeko aukera izango dute. Txorimalo gazte kolektiboaren ingurukoek duela hamar urte sortutako ekimenak tinko eusten dio orduko izpirituari, autogestio eta lanaren bidez gauza handiak antolatzeari alegia.

Jon ALTUNA IZA

Abenduaren 16an ostira-lean hasiko da multimusikala, Bartzelonatik datorren La Kinky Beat taldearen Dub Step eta Drum&Bass musikarekin, Rude Kanka Sound System-ekin zein herriko 40 de Fiebreko musikarien omenaldiarekin igande goizaldera arte luzatuko da festa. Larunbatean, eguerdian hasiko dira kontzertuak: Okendo, Artizar, Jalgi, Abend, Mauren taberna eta Trumoi ondoko auto garbategian. Kanean ere ez da faltako girorik, egunean zehar, Zozongo Batukada eta txarangekin.

Bestalde, larunbat eguerdian, kale kultura, graffitia, Break Dance eta Rap erakustaldia antolatu dituzte Udaletxe berriaren atzean. Askatasunaren parkea musikaren parke bihurtuko dute eta bertako horma, musikaren

inguruko mural erraldoi bilakatuko dute Euskal Herriko hainbat bazterretatik etorritako 20 bat graffiti egilek.

Multimusikala antolatzen duten gazteek autogestioa eta auto-finantzaketa dute oinarri hasiera hasieratik, eta beraz, aurtun lehen aldiz, ostiraleko kontzertuan, 5 euroko sarrera jarri dute. Larunbateko denak doan izango dira. Eta asko dira, eguerdian Artizarren Iban Nikolaik bere dijeridua-rekin eskainiko duenarekin hasita.

## Herriko taldeak tabernetan

Herriko taldeak nabarmendu daitezke tabernetako kontzertuetan, Abend-en metala nagusituko da A Human Disaster taldearekin, Mauren tabernan funkia, Oreindik eta Makulu Ken-ekin, Trumoi ondoko auto garbitokian punkia, besteak beste Keep Diggins ezagunekin eta The



Okendon 20x15 metroko karpa jarri eta ostira-lean hasita igande goizaldera arte hainbat motatako kontzertuak eskainiko dira.



Autogestioa da multimusikalaren ardatza.

Trifasicks berrieekin. Hauek herrikoak dira, baina gehiago ere izango dira, esaterako Jalgin reage eta ska zaleentzat Miguel Rastafarik joko baitu.

Larunbat gauean Okendon, Italiatik datorren Egin,

Donibaneko Anai-arrebak talde disko-funki-punkia, kantari-rik gabeko Buffalo talde zarauztar interesgarria, Zestako Adabegi, dantzari flamenko eta afrikarra ekartzen dituen taldea...

Festari amaiera emateko DJ Bull eta Bad Sound System arituko dira musika jartzen Jalgin eta Ilargin hurrenez hurren.

Bestalde, herriko 17 elkar-te ari dira lanean igandean 28an Neguko Euskal Jaia egiteko. Besteak beste, eguerdian kalejira, bazkaria eta arratsaldean erromeria i zango dira.

## Aurkezpena

Guztia, abenduaren 2an, arratsaldeko 20:00etan aurkeztuko du Multimusikala elkarteak seguraski Villa Mirentxuko beheko aretoan eta ondoren, etorkizunari buruz hitz egiteko bilera egingo da. Beraz, komunikabide, elkarte eta oro

har interesa duten herritarrak gonbidatu dituzte bertara.

Hamar urteko ibilbidea kontzertu handi batekin ospatuko dute maiatzean. Kanpoko taldeak eta Euskal Herriko punta puntakoak ekarri nahi dituzte eta Hipodromoan egin. Horretarako Donostiako eta Lasarte-Oriako Udalekin jarriak dira harremanetan.

Beraz, Multimusikala Oarekin ziklo bat itxi nahi dute lehen kontzertua duela hamar urte antolatu zuten gazteek. Txorimalo gazte kolektiboaren urteurren ospakizun gisa antolatu zuten abenduaren 27 batean, herria musikaz betez askok inuxente eguneko txantxa zela uste bazuten ere.

"Txorimalo kolektiboa ez da existitzen, baina sortzeko orduan izan ziren arrazoiak hor diraute" eta orduko izpirituarekin jarraitzen dute betiko zirkuitutik kanpo jaialdi potoloa antolatzen. •

## Ekintza ugari andrek jasandako indarkeriaren aurkako egunean

Emakumeek jasaten duten indarkeria gaitzesteko eguna da azaroaren 25a. Euskal Herri osoan zehar hainbat jarduera egin ziren sexu indarkeriaren aurka, eta Lasarte-Oria ez zen salbuespena izan.

Ostiral arratsaldean, A25 ekimeneko gazteek arbela jarri zuten Okendo plazan eta nahi zuenak bertan idatziz zezakeen bere ustez emakumeen aurkako indarkeriak zer esan nahi duen.

Denetarik hitzak idatzi zituen jendeak arbela inprobisatua: Indarkeria matxista "irainak, ubelduak, sistema honen islada, koldarkeria..." dela irakur zitekeen bertan.

Horretaz gain, indarkeria matxistaren gaineko orri informatiboak banatzen aritu ziren Okendo plazatik Udaletxe aldera zihoazen herritarren artean.

Gero, iluntzeko 20:00etan Emakumeen Zentro Zibikoko taldeak antzerkia eskaini zuen Manuel Lekuona kultur-etxean. Aretoa bete egin zen "Patio de Vecinas" antzezlan ikusteko eta ikusleek hausnarketarako zein barre egiteko beta eduki zuten antzerkiak irau zuen bitartean.

Egunari amaiera emateko, kontzentrazioa egin zuten A25 ekimenekoek udaletxe aurrean eta jarraipen zabala izan zuen deialdiak. •



Denetarik ekintzak egin ziren herrian emakumeek sataen duten indarkeria salatzeko.



Kolorea, festa eta musika izan ziren jaun eta jabe larunbat arratsaldean Jalgune elkarteok antolatu zuten festa erraldoian. Begirale eta gazteek primerako ikuskizuna eskaini zuten goraino bete zen kultur-etxean.

## Jalguneren jaialdi zirrargarria

Hogeigarren urteurrenaren ospakizun egitarauaren barruan hainbat ekitaldi burutzen ari da Jalgune elkarte. Horien artean kokatzen da larunbatean kultur etxean egin zuten jaialdi erraldoia.

Denetarikoko ekintzak burutu zituzten Manuel Lekuona kultur-etxean ordu eta erdi iraun zuen ikuskizun alai eta koloretsuan: dantza, magia, antzerkia... Besteak beste,

bidailagun izan dituzte Semblante Andaluzeko kideak, Sorgin Dantzako dantzariak, joaldunak, donostiako batu-kada... Finean, festa handi bat burutu dute Jalgunekoek.

20 urte 11 bertute ekimenaren barruan kokatzen den ekintza honek, ametsak bertute bihurtzea posible dela irakatsi digu guztioi.

Lasarte-Oriako herritar eta elkarten bertuteak batuta, urritasuna duten gazteen

aisialdi beharrak asetzea posible dela ikusi ahal izan zen larunbat ilunabarreko jaialdi zirrargarrian.

### Abenduaren 3ko bazkaria

Bestalde, ospakizunak ez dira jaialdiarekin amaitu, abenduaren 3an bazkaria egingo dute Goiegi jatetxean Jalgunekoak, gazteak, begiraleak, familiak eta urte guztitan beti laguntzeko prest egon diren lagunek. •



Semblante Andaluzeko kideek ere parte-hartu zuten 20. urteurrenko jaialdian.

# KOLOREZ BETETA. GATOZI!!!

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots



**Sirenen Kantua**  
Ane Pirata abenturazalearen ipuin berria



**Zazpikoloroa CDa**  
20 ipuintxo eta 20 abestirekin, etxeko sudurgorri guztientzat!



**Ongi Etorri Pupu eta Lore DVDa**  
ikuskizuna zuzenean, erreportajeak, klipak, karaokeak, partiturak...



**Bonberenea CDa +DVDa**  
pailazoak Bonberenea txarangarekin elkarlanean



**Nor gara?**  
kartoizko ipuinak etxeko txikiarentzat



**Pupu eta Lore**  
peluxezko panpinak

eskaerak [www.katxiporreta.com](http://www.katxiporreta.com)



Oria etorbidea, 10 Brunet Eraikina 5, E-4 20160 LASARTE-ORIA Tel.: 943 368 404

# Jone Vazquez, Euskadiko txapelketara

Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa igerilariak Espainiako Neguko txapelketetan egongo dira

Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteak markak hausten jarraitzen dute. Aurreko asteburuan, Ligako bigarren jardunaldian 23 marka berri ezarri dituzte. Gainera, Jone Vazquezek Euskadiko txapelketako 1500 m. libreetarako txartela eskuratu zuen eta Mikel Sotok 200 m. libreetan segundo bakarrarengatik ez zuen lortu.

Tolosan, igeriketa ligaxkako bigarren jardunaldian, guztira 23 marka personal eta erreleboko taldearen marka bat lortu zituzten pasa den larunbatean Buruntzaldea Igeriketa taldeko igerilari infantil, junior, promesa eta absolutuek.

Azpiramarratzekoa izan zen Jone Vazquezek 1.500 m. libre proban lortutakoa. Jonek Euskadiko Neguko Infantilen Txapelketan aritzeko gutxieneko denbora lortu zuen lehen aldiz egiten zuen proba honetan.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu duenez, "orain dela bi aste egindako 800 m. libreko marka 12 segundotan hobetu zuen eta aurreko urtetik zuen 400 m. libreko marka ere 5 segundotan hobetu zuen".

Naiara Lizasok marka personalak egin zituen 200 m. libre eta 200 m. estiloak pro-

betan. Bigarrenenean gainera 50 m. tximeletako bere marka hobetzea lortu zuen.

Infantilekin jarraituz, igeri egin zuen proba guztietan bere marka personala gainditu zuen Mikel Sotok. Eta 200 m. estiloak proban, Euskadiko Neguko Infantilen txapelketarako behar zuen gutxieneko denboratik segundo bakarrera geratu zen.

## Gipuzkoako selekzioa

Taldeko beste infantilak, Iñigo Ibarburuk, 100 m. tximeletako marka pertsonala lortu zuen eta 200 m. libre proban bere marka onena berdindu.

"100 m. tximeletan egindako markak konfidantza handia eman dio larunbatean Gipuzkoako selekzioarekin duen txapelketan marka lortu eta Euskadikoarekin Espainiako Lurraldean arteko Txapelketarako saiatzeko" azaldu du entrenatzaileak.



Buruntzaldeako igerilari gazteek lan ona egin zuten Ligako bigarren jardunaldian. Euskadiko txapelketan aritzeko marka bat ere lortu zuten.

## Juniorrak ere fin

Juniorrei dagokienez, guztiek Itsaso Tolosa, Mikel Arribillaga, Kevin Iglesias eta Garazi Alkortak haien marka pertsonalak gainditu zituzten.

Absolutuetan ere, Oier Mitxelenak marka pertsonala lortu zuen 50 m. bular proban. "Gainontzeko absolutuek ezin izan zituzten haien markak hobetu, baina Haitz 100 m. tximeletan txukun ibili zen, baita Naroa eta Alazne 50 m. bular proban ere" jakin

arazi ditu igeriketa taldeko entrenatzaileak.

Honetaz gain Itsasok, Garazik, Naiarak eta Naroak osatutako taldeak 4x100 m. libre proban marka berria egin zuen eta lehen tokian igeri egin zuen Itsasok bere aldetik 100 libreko marka pertsonala egin zuen.

## Espainiako txapelketa

Bestalde, lehenengo astean Espainiako Neguko Txapelketan parte hartu ahal izateko

denborak argitaratu ziren, infantil eta gazte mailakoak.

Marka horien arabera, Buruntzaldea igeriketa taldeko bi gazte izango dira txapelketa horretan lehian, Iñigo Ibarburu eta Itsaso Tolosa.

Horren arabera, Iñigo Ibarburu infantila abenduan txapelketan izango da, 100 m. tximeleta proban.

Itsaso Tolosak, aldiz, 200m. bizkar proban parte hartuko du, otsaila aldera izango den gazteen txapelketan. •



LOKEko judokak eta Gorka Aristegi entrenatzailea Uhematsu anaiekin. GORKA ARISTEGI

## Zilarrezko judoka gazteak

LOKEko judokak zilarrezko hiru domina ekarri zituzten herrira azaroaren 19an Gipuzkoako senior txapelketan parte hartuta.

Esteban Martinez, Mario Garrido eta Asier Sagasti judokak izan dira eremuko txapelkun orde izatea lortu duten hiru judoka gazteak.

Estebanek 66 kilo azpiko mailako finalean galdu zuen Usurbilgo Esteban Lacarekin.

Mario Garridok ere Usurbilgo Ion Martinen aurka galdu zuen, 73 kilo azpiko mailan.

Eta Asier Sagastik, berriz, 90 kilo azpikoetan, ezin izan zuen Aitor Gimenez donostiarra garaitu.

## Infantilen jardunaldia

Jarraian, infantilen Gipuzkoako txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zen.

Bertan, Jone Arroyok 52 kilo azpiko mailako bigarren postua eskuratu zuen. Mutilei dagokienez, Haritz Urdangarinek hirugarrena eta Jorge Revuelta eta Mikel Lasak bosgarrena.

## Amurrio eta Durango

Bestalde, azaroaren 13an Amurrioren junior mailako nazioarteko txapelketa parte hartu zuten Esteban Martinez eta Mario Garridok.

Estebanek brontzeko domina lortu zuen eta Mariok, berriz, 5. postua. Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan, Estebanek "txapelketa txukuna egin zuen".

Larunbata horretan, gainera, LOKEko lagunak Durangon izan ziren Uhematsu anaiekin entrenatzen. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Egunero

### Erakusketa

SOFIA AROSTEGIREN APUNTEAK erakusketa zabalik da azaroen zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN.

## Asteartea, 29

### Ipuin-kontalaria

KONTU KANTOIK 6, 7 ETA 8 URTEKO GAZTETXOEI zuzendutako IPUINAREN ORDUA eskainiko du. KULTURETXEKO HAURREN LIBURUTEGIAN, **18:00etan**, EUSKARAZ.

## Asteazkena, 30

### Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "NIRE AITA ETXE BATEAN BIZI DA ETA NIRE AMA BESTE BATEAN" JOSUNE MARTIRENAREN eskutik. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **18:00etan**.

### Diaporama

MAIDER ETA ANE GALARDI eta OIHAN ETA IZAR AGIRRETXE gazteek apirillean ETIOPIARA egindako bidaiaren berri emango dute. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **21:30ean**.

## Osteguna, 01

### Antzerkia

GIPUZKOAKO JUBILATUEN ELKAR-



## Zero zaborraren bidean

LASARTE-ORIA BIZIRIK eta EKOLOGISTAK MARTXAN elkarrean eskutik, ITZULI ontzi hondakinen gestiorako proiektua aurkeztuko da. Ontziak berreskuratzeko gaur eguneko sistema ez da eraginkorra, maila askotan: Kolore horiko edukinon-tzietan, ontzien %30a bakarrik berreskuratzen da. Fabrika-tzaileek %30a berreskuratzeko gastua beren gain hartzen dute. Zabortegetian bukatzen duen beste % 70aren tratamendua edo gestioa, zergen bidez, biztanle guztion gain erortzen da.

ASTEARTEA 29  
19:00ETAN

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEAN

TEAK antolatuta, V. ANTZERKI TOPAKETAK. Hondarribiko KASINO ZAHARRA eta Oñatiko PAKE LEKU erretiratuen elkarrekin antzerki taldeen emanaldia.

MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etatik aurrera**.

### Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN

eskutik, BERTSOLARI dokumentala eskainiko da. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **21:30ean**. EUSKARAZ. **Sarrera, 4,30 euro**.

## Ostirala, 02

### Antzerkia

GIPUZKOAKO JUBILATUEN ELKARTEAK antolatuta, V. ANTZERKI TOPAKETAK. Urnietako DENDA BERRI eta ONCE elkarteetako antzerki taldeen emanaldia. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, **17:00etatik aurrera**.

### Mintzodromoa

EUSKARAREN EGUNA ospatzeko Mintzodromoa eta hainbat ekintza antolatu ditu Udalak. OKENDO PLAZAN, **18:00etatik aurrera**.

### Kontzertua

ENEMIGOS ÍNTIMOS emanaldian Txuma Flamarike eta Jokin Pallaresek Joaquín Sabinaren abestien erreposaoa egingo dute. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan**, GAZTELANIAZ.

## Igandea, 04

### Zinea

Haurrentzako zinea atalaren barruan, "Zoo Loco" famili-komedia eskainiko da, **17:00etan**. GAZTELANIAZ. **Sarrera, 3,30 euro**.

## Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00  
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00  
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18  
Tel.: 943 376181

## Esazu irratiko programazioa



### Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:30etik 10:45era

## Oharrak

### Odol ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egin-gin dituzte Osasun Zentroan gaur, arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitetze, odola ordezkazezina da eta odol falta dago!

### Padel ikastaroa

Padelean lehenengo pausuk eman edo teknika garatu nahi duen herritar orok, orain dauka aukera LOKEko padel sailaren eskutik.

Egin beharreko gauza bakarra Eli Lorenzorekin harremanetan jartzea da, 687 632 737 zenbakian.

### Gazte asanbladaren aurkezpena eta afaria

Lasarte-Oriako gazteek abenduaren 3rako egun berezia antolatu dute. Arratsaldeko 17:00tan, Okendon hasi eta bukatuko den poteo musikatu egingo dute lehenik; 18:00tan, Gazte Olinpiadak antolatu dituzte eta 20:30tan izango da gazte asanbladaren aurkezpen ofiziala. 21:00tan afari herrikoia antolatu dute Okendon eta bertan erabakiko da gazte asanbladak edukiko duen izena. Ostean, 23:30etan hasita, Pau Alabjos, Trikihots eta DjZebok kontzertuak eskainiko dituzte. Afarirako txartelak salgai daude 12 eurotan Ilargi, Jalgi, Artizar, Xirimiri eta Trumoi.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Eskutitza

### Kaixo Karlos!

Badira aste batzuk Madriletik etorritako eskutitz batek kartzelara eraman zizula. Eskutitz iluna zen, baina aldi berean oso argia: Euskal Herriaren alde lan egiteagatik espetxera joan behar zenuen. Euskal Herriaren historian milaka pertsona izan dira eskutitz hau jaso dutenak, nahiz eta beste milakak ez duten hainbeste "zortirik" izan eta berdez (edo gorritz edo urdinez) jantzitako Estatu Espainoleko funtzionarioek, gauz eta etxeko atea bera botaz, beraiekin eraman dituzte.

Eskutitz honek aldiz ez du inongo zerikusirik zuk jaso zenuenarekin. Eskutitz hau maitasunetik eginda dago. Ez soilik zurekiko, baita ere espetxean, erbestean edo ihe-

sik dauden milaka Euskal Herriarrekiko. Euskal Herriak urteetan zehar pairatu duen gatazka politikoak bere horretan darrai. Euskadi Ta Askatasunak orain dela hilabete gutxi hartutako erabakiak egoera berri baten aurrean kokatzen gaitu.

Orain, inoiz baino gehiago Euskal Herriaren alde lan egiten jarraitu beharra dugu. Euskal Herriak bere etorkizuna libreaki erabakitze esku-bidearen helmuga gertuago dugu, baina horretarako korrika egiten jarraitu behar dugu, lanean jarraitu behar dugu. Denon artan lortuko dugulako!

Azken asteetan Xirimiri zuzendaritzako kideok buru belarri gaude elkarrean lanean. Leku guztietara iritsi da ditxosozko krisia, baita gurera ere, baina argi dago dirua ondo gestionatuz eta

azulanez eta elkartasunez gauzak egitea posible dela. Eta ez pentsa, orain espetxean zaudelako ez zaizula lana egitea tokatuko. Ez ahaztu, aurreko zuzendaritzako kideek (La vieja guardia) zuzendaritza berriari bazkari bat zor diola oraindik. Gainera, hilabete gutxi barru Elkarreko urteurrena izango da. Ikusirik azken asteetan ez zarela elkartetik asko agertu, seguruena espetxetik atera eta Elkarreko sukaldean sartzeko gogoak edukiko dituzula. Horregatik, eta zuregan pentsatuz (maitasunetik ere) aurtengo bazkaria ere zure kontu geratzen da.

Bestetik gabe, eta laster ikusiko garelakoan besarkada bero bat "compañero"!

Xirimiri elkarteko zuzendaritza

### Abenduak 17an, Denok Bilbora!!!

Emakumeen aurkako indarkeria, bai Euskal Herrian zein munduko beste leku batzuetan, lehen mailako arazo sozial, politiko eta kulturala da.

Arazo hau botere harremanak daudelako gertatzen da eta gizonen emakumeenganako duten zapalketa harremanen emaitza da.

Indarkeria honek ondorioz emakumeen herritasun jar-duera oztopatzea eta gure gorputzen kontrola du.

Hau guztiarengatik, Euskal Herriko mugimendu feminista, indarkeria sexistak eta honek aurkeztu dituzten milaka aurpegiak salatuzko, emakume eta gizon guztioi hurrengo abenduak 17an kaleak okupatzeko deialdia egiten du.

Indarkeria sexista, patriarkatuaren ondorioa da, egunero era desberdinetan isladatzen dena, ez da salbuespeneko zeezer, lan-desberdintasuna, laneko jazarpena, publizitate sexista, emakumeen gutxiespena, justiziaren aurreko zigorgabetasuna, bikote edo familiaren kontrola... dena da indarkeria.

Beste gizarte eredu bat eraiki nahi badugu, lehenetsuneko eta ezinbesteko aldatu da hau.

Abenduak 17an, Denok Bilbora!!!

Euskal Herriko Bilgune Feminista

# GIPUZKOA BERRIKETAN

GUK ERE  
EUSKARAZ

z e i s x b  
n o

b t  
r e n  
a u p

2011ko abenduaren 3a  
Euskararen Nazioarteko Eguna



Gipuzkoako Foru Aldundia



**LASARTE-ORIAKO MINTZODROMOA**  
Abenduaren 2an, 18:00etatik 21:00etara,  
Okendo plazan